



KONTU HARTZAILEAREN TXOSTENA

2021eko ekitaldirako aurrekontu orokorraren proiektuak, Barne Antolaketaren batzordeak 2020ko abenduaren 14an egindako diktameneko kopuruen arabera, 36.202.466,00 euroko zenbatekoa du. Proiektu horretan bakar-bakarrik jasota dago Arrasateko Udalaren beraren aurrekontua.

Udalaren beraren aurrekontua **egin da aurrekontuei buruz indarrean dauden legezko xedapenak jarraituta**. Ikusita zer irizpide erabili diren aurrekontu zuzkidurak kalkulatzeko, hau adierazi behar da:

Diru sarreraren aurreikuspenetarako, abiapuntutzat hartu da, aurrekontuaren **I., II., III. eta V. kapituluetan, 2020. urtean likidatutako eskubideen estimazio bat**, itxiera aurrerapeneko datuen arabera, **kontuan hartuta 2020rako ordenantza fiskaletan egindako aldaketek (% 0ko igoera orokorra) dakartela**, 2020ko uztailaren 28an hartutako osoko bilkuraren erabakiaren arabera, ez gehitzea 2020an indarrean zeuden tarifak, eta eragin negatibo bat dakartela aurreikusitako diru bilketan, OHZn ondasunen amortizazioaren eraginez nahiz OHZn eta JEZn salbuespenen eraginez, emandakoak foru arauak irabazi asmorik gabeko erakundeei, onura publikoko deklaraturakoak.

Diru sarreraren IV, VI, VII eta VIII. kapituluetarako, oinarritzat hartu da orain dagoen **informazioa**, baita ere, **beste erakunde batzuek hartutako dirulaguntza konpromisoak** (Foru Funtsean parte hartzea, Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako informazioaren arabera). Dena den ere, hala badagokio, ekitaldian izan daitezkeen desbideratze negatiboak, batez ere Ondareak saltzea (Hirigintza Kargak) VI. kapitulutik datozenak, horiek baitute segurtasun gabeziarik handiena, aztertu beharko dira aurrekontuaren exekuzioa berraztertze testuinguruan eta, desbideratzearen tamainaren arabera, batez ere hura negatiboa izanez gero, saiatu beharko da beharrezkoa den aurrekontu oreka lortzen, edo gastuak murriztuz edo diru sarreraren beste partida batzuen gehikuntza osagarria bilatuz.

Gastuen atalean, adierazi daiteke **aurrekontuko diru izendapenak**, hasiera batean, **nahikoak direla betebeharrak galdagarriak betetzeko**, datozenak zerbitzuen funtzionamendu normaletik. Nolanahi ere, aldeak egonez gero aurrekontu beharren eta aurreikuspenen artean 2020ko aurrekontuaren partidetan, nire ustez, aukera dago ere kreditu globala eta aurrekontuaren exekuzio oinarriak erabiltzeko (horiek ematen duten malgutasunarekin aurrekontuetako desorekak konpontzeko); beraz, uste dut badagoela behar beste tresna ekitaldian (urtea) zehar sortu daitezkeen gastu desbideratzeak arazo handia barik konpontzeko.

Pertsonalaren kapituluko gastuei **dagokienez, jarraibide eta muga zehatzik ez dagoenez, estatuko arauditik eratorritakoak (Estatuko aurrekontu orokorrak daude onartzeko fasean), 2021eko udal aurrekonturako zuzkidurak kalkulatu dira, termino homogeenetan, gehikuntza barik 2020. urtearen amaieran indarrean zeuden lanpostuei eta ordainsariei dagokienez, horiek berraztertzeari buruz ekitaldian zehar hartu daitezkeen erabakien zain.**

Gainerako diru sarrerekin estali ezin diren gastuen zenbatekoa finantzatzeko, **udalaren aurrekontuan jasota dago 3.200.000 euroko mailegu bat eskatzea**. Diru sarrera horrekin, aurrekontua berdintzea lortzen da.

2021eko ekitaldirako jasotako zorpetzearen zenbatekoari dagokionez, esan behar da, printzipioz, **ez direla betetzen aurrekontu egonkortasunaren, zor publikoaren eta gastu arauaren helburuak**, ezarritakoak bai apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa, bai hura garatzen duen ondorengo lege-araudian, besteak beste, otsailaren 8ko 1/2013 Foru Araua, zeinak garatzen baitu finantza babesaren eskumena Gipuzkoako toki erakundeen aurrekontu egonkortasunari eta finantza jasangarritasunari buruz. Aurreikuspen hau mantentzen bada 2021eko ekitaldiaren likidazioan, plan ekonomiko-finanzario bat onartu beharko da.



Hala ere, azaroaren 10eko 9/2020 Foru Dekretu Arauak, Gipuzkoako toki erakundeei aplikatu dakizkiekeen ezohiko eta premiazko finantza neurriei buruzkoa, etenda utzi ditu Gipuzkoako toki erakundeen zerga arauak, ezohiko izaeraz eta 2020. eta 2021. urteetarako soilik, eta horrek esan gura du eraginik barik utzi direla aurrekontu egonkortasuneko eta zor publikoko helburuak, eta ez dela aplikatu behar gastu araua urte horietan. Etete horren ostean, finkatutako aurrekontu egonkortasunaren eta zorraren helburuak, finkatuak azaroaren 10eko 9/2020 Foru Dekretua-Arauak, erreferentzia tasatzen hartzen dira, eta 2021erako hauek dira:

- **Aurrekontu egonkortasuna – defizit helburua: 2.349.493 euro.** Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat ezarritako defizit helburuaren % 40 udalei lagatzearen emaitza, eta, era berean, helburua finkatu da defizit globala banatuz Udal Finantzaketarako Foru Funtsaren kuoten proportzio berean.
- **Zor publikoa** – Epe luzeko zorrak koherentea izan beharko du ekitaldi bakoitzerako onartutako defizit helburuarekin.
- **Gastu araua** – Ez da aplikatzen.
- Edozein modutan ere, hiru helburu horiek egiaztatu behar badira kontu hartzailearen txosten baten bidez, bai 2021eko aurrekontuak onartzean, bai horiek aldatu eta likidatzean; 2021eko aurrekontuen likidazioaren testuinguruan lortzen diren konklusioek bakarrik erabakiko dute, hala badagokio, plan ekonomiko-finantzario bat derrigorrean egin eta onartzea. Salbuespenez, 2020ko eta 2021eko ekitaldietan, plan ekonomiko-finantzarioa “didaktikoa” izango da, eta epe luzerako kudeaketa eta plangintza tresna bat izango da, baina haren betetze mailak ez du ekarriko derrigorrean neurri gehigarriak hartzea.

Aurrekontuak onartzeko fasean, hiru helburuak (egonkortasuna, zorra eta gastu araua) betetzeari buruzko erreferentziak ikusi daitezke agiri honekin batera doan txostenean.

Konpromiso kredituei dagokienez, badira 2020ko ekitaldiaren eta ondorengo kontura onartutako konpromiso kredituak, 5.044.199,48 eurokoa, kreditu erreserbatatik datozenak, konpromisook hartuta Kulturola birgaitzeko proiektuko obrei dagokienez, 1.402.881,53 eurokoa, Etxaluze-Maala ekobulebarraren kontratazio espedienteak, 2.054.368,01 eurokoa, Zalduspeko urbanizaziorako kontratua, 112.163,32 eurokoa, Hondarribia kaleko 1-3 zenbakietan dagoen lokala eta Araba etorbideko 13. zenbakiko pabilioia birgaitzeko kontratua, 49.781,71 eurokoa; horrez gain, 2019ko maiatzaren 7an Udaleko Osoko Bilkurak hartutako erabakitik datozenak, AE 15.- GAUTXORI eremua kudeatzeko hirigintza hitzarmenari buruz (guztira 1.375.770,00 euro). Halaber, aurrekontuko exekuzio arauak jasota dute aukera bat 2021ean konpromisoak hartzeko, inbertsio proiektu jakin batzuetarako, geroko ekitaldien kontura, hori guztia baldin eta betetzen badira 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako toki erakundeen Aurrekontuen gainekoa, 22. artikuluan eskatzen dituen baldintzak, zeinak, besteak beste, ezartzen baitu etorkizuneko ekitaldi bakoitzerako indarrean dauden konpromisoen zenbateko pilatua ezingo dela izan azken ekitaldi likidatuaren eragiketa arruntengatik baliabideen % 25etik gora. Laburtuz, ikusita zenbaterainokoa den gaur arte onartu diren konpromiso kredituak, kontuan hartuta horien zati inportante batek (% 56,4) eragiten duela 2021eko aurrekontuan, 2021eko aurrekontuaren bidez bermaturik baitago hura finantzatzea, eta ikusita zer ezaugarri duten 2021ean hartu behar diren konpromiso berrietarako kasuek, **ondorioztatu daiteke ez dela espero arazorik izatea udalaren gaitasun ekonomikoari buruz aurre egiteko konpromiso horiek finantzatzeari, etorkizuneko ekitaldien konturakoak.**

Azkenik, adierazi behar da, aurrekontua onartzeko, Udaltzaren kideen gehiengo soilaren aldeko botoa behar dela. Aurrekontua onartzeko hasierako erabakia hartuta, hura erakutsi beharko da jendaurrean, iragarri lurralde historikoko aldizkari ofizialean eta Udaltzaren iragarki taulan, hamabost egunean, eta epe horretan interesdunek aurrekontua aztertu ahal izango dute, eta haren aurka bidezkotzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu.

Erreklamazioen bat jasoz gero jendaurreko aldiaren, horiek erabakiko dira hil bateko epean.



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Kontu hartzailetza ■

Horixe da esateko daukadana, Arrasaten 2020ko abenduaren 14an.

Kontu hartzailea

2021rako ZOR MUGA HELBURUAREN BETETZE MAILA - FORU DEKRETUA/ARAU 2020/9, 2020/11/10KOA

2021KO URTE BUKAERARAKO BALIOETSITAKO ZORRA

2021/1/1AN SINATUTAKO MAILEGUETATIK 2021/12/31AN AMORTIZATZEKO GELDITZEN DEN KOPURUA 0.00

2021KO MAILEGU BERRIA 3.200.000.00

2021/12/31an AMORTIZATZEKE GUZTIRA 3.200.000.00

2021KO KONTSOLIDATUKO SARRERA ARRUNTAK (2021ko aurrekontuaren datuen arabera) 32.762.466.00

% MAILEGUEN ZORRA / KONTSOLIDATUTAKO SARRERA ARRUNTAK 9.77

2021ko AURREKONTUEN EGONKORTASUNARI BURUZKO HELBURUA - FORU DEKRETUA/ARAU 2020/9, 2020/11/10KOA

KONTSOLIDATUTAKO GASTUEN I - VII KAPITULUEN BATURA	36.102.167.88 (*)
KONTSOLIDATUTAKO SARREREN I - VII KAPITULUEN BATURA	32.912.466.00 (*)
	<hr/>
SARRERA ETA GASTUEN ARTEKO ALDEA (0, defizita ez edukitzeko)	-3.189.701.88

(*) kalkuluak erraztearren, ez da KSE eraginetarako doikuntza esanguratzurik egiten

2021ERAKO GASTU ERREGELAREN ARAUARI BURUZKO BETETZE MAILA

A - 2020 URTEA (*)

1 .Konsolidatutako enplegu finantzarioak (2020ko aurrek. Gastuen I -VII kapituluak)		33.000.000.00
2. III.kapituluaren interesen doiketa (bakarrik maileguen interesak)		0.00
3. Beste administrazio publikoek finantzatutako gastuaren doiketa (ikus 1.taula)		-1.919.660.25
- Udala-gastu arrunta	1.379.660.25	
- Udala - Kapital gastua	540.000.00	
- Iturbide	0.00	
4. Exekutatu gabeko gastuen doiketa(**)		
5. 2020erako GASTU KONPUTAGARRIA		31.080.339.75

B - 2021 URTEA

1 .Konsolidatutako enplegu finantzarioak (Gastuen I -VII kapituluak)		36.102.167.88
2. III.kapituluaren interesen doiketa (bakarrik maileguen interesak)		-7.500.00
3. Beste administrazio publikoek finantzatutako gastuaren doiketa (ikus 2.taula)		-1.734.400.00
2020RAKO GASTU KONPUTAGARRIA		34.360.267.88

C -ONARTUTAKO GEHIKUNTZA -ez dago ezarrita (Foru Dekretua-Araua 2020/09, 2020/11/10ekoa)

0.00

D- ARAUDI ALDAKETAN ONARRITUTAKO SARREREN GEHIKUNTZAK (***)

0.00

E - 2021ERAKO GASTU ERREGELA BETETZEN DELA EGIAZTATZEA

E.1.- 2020 DOITUTAKO GASTU KONPUTAGARRIA		31.080.339.75
E.2.- (+) ez dago		0.00
E.3.- (+) ARAUDI ALDAKETETAN ONARRITUTAKO SARRERA GEHIAGOEN BATURA (***)		0.00
E.4.- (+) SARRERA GEHIAGO FFFM		1.300.000.00
E.4.- 2020RAKO GASTUAREN MUGA ARAUDIA BETETZEKO (1+2+3+4)		32.380.339.75
E.5.-2021RAKO AURREK.ARABERAKO GASTU KONPUTAGARRIA		34.360.267.88
E.6.-2021EAN GASTU ERREGELA BETETZEKO ALDEA (E.5 - E.4) (****)		-1.979.928.13

(*) 2020ko exekutatutakoaren estimazioa arabera- 2019ko txertatutako kredituen eragina

(**) exekutatu gabeko doiketa ez da egiten kalkuluak erraztearren

(***) erabakia fiskalizazioa EZ igotzea

(****) 2021erako gastu erregela ez da aplikatzen (DFN 9/2000)

1.TAULA - 2020AN BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOEK FINANTZATUTAKO GASTUA

1- UDALA - GASTU KORRONTEAK	1.379.660.25
- Diputazioa - partehartzea	5.000.00
- E.J. - Kultur Ekintzak	5.600.00
- Diputazioa - Kultur Ekintzak	29.000.00
- E.J.- Kulturaterako liburuak	11.000.00
- E.J. - Liburutegien dinamizaziorako	3.000.00
- E.J. - Ongizateko pertsonalerako dirulaguntza	35.000.00
- Diputaz. - Herrera Zerbitzurako laguntzak	8.000.00
- E.J. -Gizarte mapako laguntza	100.000.00
- E.J. - Herrera Zerbitzurako laguntzak	7.500.00
- E.J. - Drogomenpekotasunerako laguntzak	38.000.00
- Diputazioa - etxez etxeko zerb.	140.000.00
- E.J. - GLL	243.000.00
- INE - Zentsuaren eguneraketa	300.00
- HAEE - pertsonal formakuntzarako laguntzak	12.000.00
- Diputazioa - Mendi garbiketa	500.00
- Mankomunitatea - Akeiko mantenua	9.000.00
- Mankomunitatea - UIEko kanpaina	8.000.00
- E.J. - Bake epaitegia	5.000.00
- E.J. - EBPNrako laguntza	
- HABE - Euskaltegia	380.000.00
- Diputazioa - Euskera	19.000.00
- Diputación - Gazteria	10.000.00
- Diputazioa - Emakume arloko jardueretarako	16.000.00
- Lanbide -Enplegua sustatzeko laguntzak	140.000.00
- Diputazioa - igeriketa kanpaina	9.500.00
- Diputazioa - liburuen errekupeazioa	1.500.00
- Estatuko Admin. - Lan "R" bai programa	98.360.25
- E.J. - Arbigara proiektua	10.400.00
- Europar fondoak - Shrec proiektua	35.000.00
- Europar fondoak - Tec4companies proiektua	
2 - UDALA - KAPITAL GASTUAK	
- VII.Kap.	540.000.00
3- BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOEK FINANTZATUTAKO 2020ko GASTUAK GUZTIRA	<hr/> 1.919.660.25

2.TAULA - 2021EAN BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN FINANTZATUTAKO GASTUA

1- UDALA - GASTU KORRONTEAK	1.394.400.00
- Diputazioa - partehartzea	10.000.00
- E.J. - Kultur Ekintzak	5.600.00
- Diputazioa - Kultur Ekintzak	30.000.00
- E.J.- Kulturaterako liburuak	10.000.00
- E.J. - Liburutegien dinamizaziorako	3.000.00
- E.J. -Gizarte pertsonalerako laguntza	35.000.00
- E.J. - Gizarte mapako laguntza	100.000.00
- E.J. - Harrera Zerbitzurako laguntzak	7.500.00
- Diputazioa - Harrera Zerbitzurako laguntzak	8.000.00
- E.J. - Drogomenpekotasunerako laguntzak	38.000.00
- Diputazioa - etxez etxeko zerb.	200.000.00
- E.J. - GLL	300.000.00
- INE - Zentsuaren eguneraketa	300.00
- HAEE - pertsonal formakuntzarako laguntzak	12.000.00
- Diputazioa - Mendi garbiketa	500.00
- Mankomunitatea - Akeiko mantenua	9.000.00
- Mankomunitatea - UIEko kanpaina	8.000.00
- E.J. - Bake epaitegia	5.000.00
- HABE - Euskaltegia	380.000.00
- Diputazioa - Euskera	20.000.00
- Diputación - Gazteria	10.000.00
- Diputazioa - Emakume arloko jardueretarako	16.000.00
- Lanbide -Enplegua sustatzeko laguntzak	140.000.00
- Diputazioa - igeriketa kanpaina	10.000.00
- Diputazioa - liburuen erreperazioa	1.500.00
- Europar fondoak - Shrec proiektua	35.000.00
2 - UDALA - KAPITAL GASTUAK	
- VII.Kap.	340.000.00
3- BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN FINANTZATUTAKO 2021eko GASTUAK GUZTIRA	<hr/> 1.734.400.00